

# **PUTOK ZERGATIK OIHU EGITEN DUGU?**

**ITZIAR ZIGA**



**-AI, KARMELA-  
GERO ETA SENDOAGO ETA SEGURUAGO SENTITZEN NAIZ, ORAIN EZ NAIZ GAIZKI  
SENTITZEN ERASO MATXISTEI IRMO ERANTZUTEAN. GOGOKO DUT  
TESTOSTERONA-SENTIPEN HAU, KONTROLATUA BADA ERE.**

Joan den abuztuko edozein eguerdi itogarritan, TV3en goizeko programan, eztabaidatzen ari dira prostituzioa ezeztatu behar den edo ez. (Behin eta berriz izutzen nau argitaratutako iritzi publikoan azken urteotan debeku kontuetan gertatu den koska bat gehiago estutzeak, milurtearen amaierak antza denez emeki-eme-ki eraman behar gintuenean truke ekonomiko/sexualaren lan-erregulaziora, okerrenera jota ere). Platoan sexu langile bat dago eta beste bi emakume, eta ezin dut ulertu egoerarekin eurek duten zerikusia. Bi andreek ez diote hitz egiten uzten Cristinari, telesaiora gonbidatu duten putari. Nire haserreak hainbeste arago- gotu du inguruko bero sapa, non telebistari soinua kentzea erabaki baitut.

Cristina, platino kolorezko lehoi-kima, bilu- zertz sakon zorabiagarria, bertan amildu nahiko zenukeena beste edozer baino gehia- go, eta larruazala izerdiak perlatua -andreek ez dute transpiratzen, antza-, bere burua azaldu nahian dabil. Ikasketak dituela dio, familia dirudun eta zoriontsu batetik dato- rrela, baina lan merkatuak emakume gisa eskaintzen zizkion lan guztien artean pu- tarena aukeratu zuela. Orduan andre batek -ongi tapatuta, behar den bezala-, eten egin du Cristina. Aurpegiratu egin dio hori hala baldin bada, giro doilor desegituratu hori- zontzerik gabeko batean ez baldin bazen hazi, orduan berak, Cristinak, nahiz eta zenbait

urte eraman sexu langile moduan eta bere gremioaren eskubideen aldeko ekintzailea izan, orduan bera, Cristina, ezin dela prosti- tuten kolektiboaren ordezkaria izan eta ezin dezakeela puta gisa hitz egin.

Cristina oihuka ari da eta ez die besteei isilarazten uzten. Andrea irainduta sentitu da Cristinaren tonua dela eta. Nori otu zaio, ordea, prostituzioaren inguruko eztabaida batera puta bat ekartzea? Askoz errazago hitz egiten da haietaz bertan ez daudenean. «Oraindik ere, ia beti hitz egiten dute gutaz pertsona adituek, aztertu egin gaituztenak. Eta prostituzioaren inguruko legeak egiten

dituzte gu kontsultatu gabe kaleko egoera zein den jakitearren. Ez dut ulertzen. Kongresuan horren gainean eztabaidatu zuteanean Dolores Julianori deitu zioten, soziologian doktorea bera, eta hark esan zuen ni eramango ninduela. 'Beharrezkoa al da hura etortzea?', galdetu zuela jaun hark, azaldu zidan duela urte batzuk Margarita Carreras Bartzelonako sexu langile eta ekintzaile nekaezinak.

Gehiago: «Mesfidantza gehiago topatu dut emakumeengan gizonengan baino ordezkaria naizela onartzeko orduan, garbia naizelako, ongi hitz egiten dudalako, heziketa dudalako, baita jendeak prostituzioarekin elkartzan ez dituen manerak ere», kontatu zidan Carla Corsok, benetako aitzindaria baita sexu langileen eskubideen aldeko mugimenduan Italian eta European. Emakume onek, zintzoek, andreak, putak ez direnek, besteak, desbideratuak, isilarazi ditzakete eta isilarazi egin behar dituzte: horren baitan dago feminitate zilegiaren estatusa izaten jarraitzea. Emakume ona putaren aurkako borroka hori etengabe ari da gertatzen gizarte alorrean, baita alor intimoan ere.

Koska bat dago, ordea: alegia, lehiaren emaitza ez dagoela ona bere burua gaiztoaren gainean jartzen saiatzen den gogortasunaren baitan. Ondotxo dakigu egoera gehitxotan edozein emakume sozialki markatua izan daitekeela puta gisa. Senarrarengandik banatzen bada, tratu txarrak salatzen badiu, lesbiana bada, ama ezkongabea bada, gauzez lan egiten badu, bular handiegiak badiu, zuria ez bada, transexuala bada, bere eskubideak defendatzen badiu, bakarrik bizi bada, batez ere txiroa baldin bada... Koska da emakume batek bere zintzotasunari heltzen dionean puta baten aurrean, bai berari, bai putari, biak ala biak emakumeak baitira, buruzidatzeko gaitasuna kentzen dien ordena patriarkala onartzen duela. Edozein emakume beti frogatu beharko du ez dela puta.

Itzul gaitezen TV3en platora, bertan utzi baitugu Cristina, sexu langile eta ekintzailea

den aldetik ongi ezagutzen dituen gauzez hitz egin dezakeela defendatzen. Une alu batez irudika al dezake inork Cristina, puta izateaz gain ama ez izatea eta, amatasunaren inguruko eztabaida batean zilegitasuna kenduko balio berrietakide bati argudiatuz, adibidez, bost hurren ama dela, baina gaur egun ama bakoitzeko bataz besteko haur kopurua 1,8 dela, eta horrenbestez ezin daitekeela ordezkaria izan, eta haren esperientzia ez dela aintzat hartu behar? Irudika al dezakegu Cristinak, oraindik ere prostituta dena, itzala kenduko balio enpresari gisa gonbidatutako berrietakide bati soil-soilik negozioa bere aitarengandik oinordetu delako, Cristinaren parametroen arabera negozioak zuzentzen ari diren emakumeen %90 hutsetik hasi direla argudiatuta?

Asmo txarrez aurrez epaitzen ari ote naizen dudaren aurrean, hankaz goratutako munduaren proba egitea proposatzen dut. Ez du sekula huts egiten. Zapaldua dena, balizko rol-truke errugaberen baten bidez, zapaltzaile izatera pasatzen denean, sekulako aldaketa gertatzen da. Orduan konturatzen gara Cristina alde aurretik gaitzetsita iritsi zela, horregatik ari zen oihuka, izerditan. (Nik ongi ulertzen dut hori, niri amorrutako hodei gorri bat oldartzen zait norbaitek -batzuetan pertsona hurbilak eta maite ditudanak- gutxietsi egiten duenean indarkeria matxistazko egoera baten aurrean nik egindako azterketa bat erasotzaileak aitaren tratu txarrak jaso zituela argudiatuz). Cristinaren bezeroak harekin negoziatzen du, baliozko solaskidetza aitortzen dio. Puten duintasunaz hain arduratuta dagoela dioen andreak ez.

Ni ez omen naiz andrea, nahiz eta ez dudan inoiz neure burua gai ikusi izan nire onurarako jarduten gizonen merkatu ekonomiko-sexualean, eta gustatuko litzaidake emakumeek niri ordaintzea haiekin txortan egitearen trukean. (Duela urte batzuk, Bartzelonako emakume adiskide talde batek Mujeres Horizontales asmatu genuen, emakumeentzako emakumeen sexu zerbi-

tzuak. Diana Junyent Pornoterroristak bezero batzuk izan zituen, baina eskuarki eta nahiz jende interesatuaren hainbat eta hainbat eskaera hartu internetez, proiektuak ez zuen aurrera egin. Beharbada emakumeoi kulturalki zailagoa egiten zaigulako sexuagatik ordaintzea, eta diru mordoak ere ez dugu preseski izaten. Hori bai, Diana hatz mamiak kea zeriela geratu zen ordenadorean idatzi eta idatzi, zenbait lesbiana eta feminista zintzoren erasoetatik bere burua defendatzen. Baina saiatzen jarraituko dugu, zirikatzeke besterik ez bada ere.)

Berriro diot, ez omen naiz andrea, nire zerbitzari soldataz fakturak zintzoki eta eskasian ordaintzen ditudan arren. Baina andreek putak isilarazi egiten dituzte, eta nik izugarri atsegin dut haiei entzutea. Uste dut haiengandik eta haien egunerokotasun klandestinitatik asko ikas dezakedala mundu honen funtzionamenduz. Beharbada puten alderdi horrexek amorrarazten ditu andre zintzoak: badakitela beren senarrek ezkutatzen dutenaren berri. Eta beren senarrak askoz adeitsu eta atseginagoak izan daitezkeela putekin beraiekin baino. Izan ere, entzun edo irakurri ditudan puta asko bat datoz bezeroek putei tratu txarrak ematen dizkietela hain zabaldua dagoen aurreiritzi hori gezurtatzeko orduan. Nell Kimbal, Virginie Despentes, Verónica Arauzo, Paula Rodríguez, Carla Corso, Margarita Carreras, Lydia Lunch...

«Prostituzioa funtsezko ispilua da munduko emakume guztientzat», dio María Galindok Argentinatik Sonia Sánchezekin batera argitaratu duen *Ninguna mujer nace para puta* lan ezin politagoan. Uste dut hor datzala emakume zintzoen putafobiaren arrazoia: ez dute ispilu horretan begiratu nahi, esklabo zilegiak izateko abantaila ziztrinari heltzen diote. Beste batzuk ni baino apalago aintzat hartuak dira, ari dira esaten, antza, putak isilarazten dituzten andreek. «Prostituten neke eta zorigaitzen inguruko ikerketak oso gutxitan gogorarazten digu emakumeek pairatzen duten miseria eta nahigabea, baita harreman

zilegienean ere, alegia, ezkonbizitzan», gogoratzen du Gail Phetersonek bere *El prisma de la prostitución* ezinbestekoan.

Beldurra sentitzen dut prostituzioa abolitzearen aldeko diskurtsoen berpiztea ikusiz, eta ernegatu egiten nau erregresio saio horren aurrean ahots feminista gehiago ez altxatzeak. Horren goiz ahaztu al dugu lau-rogeiko hamarkadan Estatu Batuetan feminista antipornografikoen eta muturreko eskuinaren arteko aliantza perbertsoa, Raquel Osbornek, benetako satorra gertakari lotsagarri hartan, bere *La construcción sexual de la realidad* liburuan kontatzen duena? Ba ote dago feminista bakar bat sistema heteropatriarkalarentzat bere ahizpa puta baino garbiagoa eta onargarriagoa dela sinesten duena?

Tira, bada. Jolas gaitezen monopoly sozialean. Ezezta dezagun prostituzioa. Baina jakina, ezin dezakegu politikoki hain arduragabe jokatu. Ezin dezakegu emakumeen egoeraren, emakumeen patriarkatuarenganako mende-kotasunaren, emakumeen diru sarrera mugatuen iraultza horren erradikal bat erdizka utzi. Prostituzioa ezeztatzen badugu, legez kanpo jarri behar da aldi berean ezkontza heterosexuala. Ausartuko al da inor?

Eta, oraindik inork zalantzarik izango balu, prostituzioa eta ezkontza ahizpa siamdarrak direla ilustratzeko, transkribatu egingo ditut Verónica Arauzo gure adiskideak emanaldika bidaltzen digun *Aventuras y desventuras de una puta trans en el extranjero* ziberripuin zirraragarriaren lerro batzuk: «Eta bete-betean sartu naiz eskola oporretan, ez dakit zein jai tipikotan, eta horrek bezeroen jaitsiera dezentekoa ekarri dit; horrek agerian uzten du iraupen luzeko eta familia-egonkortasunezko ezkontzen oinarrian familia buruaren barru-arintzeak daudela, han-hemenka egiten dituenak izan nahi badu azken batean den hori: familia burua».

Neska zintzoen eta neska gaitoen arteko bereizketa ezinbestekoa da emakume guz-

tiok patriarkatua zerbitza dezagun. Ipuin hori sinesten badugu, jai dugu. Andreak (eta feministak) egiten duen putaren gorputzaren kolonizazioa ordena heteropatriarkalaren mekanismo perbertsoenetako bat da emakume guztien gorputzak menderatzeko.

Urteak baitaramatzat interesatuta, ikertzen ari naiz putaren estigmak zer eragin duen emakume guztiengan. Noizdanik eta zertarako emakume feminista asko ari garen puta mozorroa janzen (sexu lan ordaindua izan edo ez izan). Ikertu dut irainaren birjabetzetik, suposatzetik emakume guztiak une bakan edo ugaritan paria sexualki erasogarrri moduan tratatzen gaituztela, eguneroko erresistentziatik minigona eta kortseak botatzera aintzat hartuak izateko edo oharkabean pasatzeko, gure pertsonaia sozialaren eraikuntza plazerezkotik. Elkarrizketak egiten jardun dut aktibismokideei, adiskideei, maitaleei, eta diskurtso hibrido zentzugabe bat eraikiz joan naiz txakurreme generoaren inguruan.

Eszenaratze hiperfemenino putatzarraren eta jarrera antipatriarkalaren bat egitea interesatzen zait, bizi naizen inoren lurraldea delako. Bartzelonako nire ingurune afektibo-politikoan emakume asko aritzen gara postporno transmaritxubolloan, ez genuke neska zintzoen itxura emango ezta nahita ere, edozein gautan biluzten gara La Bata de Boatinén -Raval aldeko gure edaska queera-elkarrekin igurzteko gure gorputz izerdituak. (Taldean joaten gara, noski, ez gara tuntuak). Eta denak gara feminismoaren alaba sasiko eta baldintzagabeak.

Emakumeen (maritxuen, emakume transgeneroen, emigratuen, ordena patriarkalkapitalistaren zerbitzari jaio edo bilakatu ginen guztien) gorputza sexu bihurtutako gorputza da, putaren gorputz eskuragarri eta penetragarria da, Beatriz Preciadok bere *Testo Yonqui* argituan gogoratzen duen moduan. Edozein emakumek bere bizitzan barrena topatzen dituen sexu erasoaren kopurua zenbatu besterik ez dago. Etengabeko indar-

keria suntsitzaile horri emandako erantzun guztiak zilegiak dira. Gure erantzuna txakurremeak garen aldetik honako hau da: konforme, nire gorputza puta batena da, begira nola gozatzen dudun, begira nola korritzen naizen, begira nola igurzten dudun nire puta gorputza nahi dudanarekin, nahi dudanean, nahi dudun lekuan.

Duela bost urte Bartzelonan aukera izan nuen Annie Sprinkle gure mamma postpornografikoa ezagutzeko. MACBA haren mirreslez muku zegoen, eta hark liluratu egin gintuen *Mis treinta años de puta multimedia* lanarekin. Porno aktorea eta zuzendari, artista eta show-woman gisa egindako ibilerak kontatzen entzuteak halako plazera eman zidan, non menstruatzen hasi bainintzen hantxe bertan, txakurreme arreske bat bezala. Urte askoan ibili zen Annie munduan barrena bere umetokiaren lepoa erakusten bere zangantea ikusi nahi zuen orori. Berak irribarre egiten zuen, zangoak zabal-zabal bereizita. Egoera kontrolatzen duen putaren, artista pornoaren irribarre hura da niretzat mundu hetero-arautu honetan lepokorik gabeko txakurremeok garenaren paradigma.

*Zehar* aldizkariak proposatu dit artikulu bat idatz dezadan gorputzaz, erresistentziaren agentea den aldetik. Gorputza, gorputzak. Neskabila nintzela, neskabila guztiak bezala, aitak, aita guztiek bezala, alferrik ezkututzen zituen porno aldizkariak ebaska bilatzen nituen. Odol gorri koloreko besaulki baten sabel belusatuan, zain nituen *Playboy* aldizkariak, *Punto y Horarekin* batera. Ezagutu ez zenutenentzat, ongi gogoratzen banaiz, *Punto y Hora* laurogeiko hamarkadako konpromiso politiko handiko aldizkaria zen. Porno aktoreen gorputz gozagarriak erremediorik gabe nahasi zitzaizkidan poliziaren tortura basatia jasan zutenen gorputz ubelduekin. Porno modeloek eta torturatuek han egon nahi zuten, eta beren gorputzen irmotasuna erakutsi, arrazoi desberdinak zirela medio. Lehenentzat lan bat zen; bigarrenentzat, salaketa premia mingarria.

Itxuragabea iruditzen zait hainbatetan aipatutako haurren ordutegian gorputz pornografikoak erakusten ez uztea, baina aldi berean gure etxeak gorputz babesgabe sufritzaileez inbaditzea. Ezin ahatz daiteke joan den abuztuan Barajasen izandako hegazkin istripuaren berria nola eman duten medioek. Hor egon nahi ez duten gorputzak, ez aireportuko airatzeko pistan, ez ospitaletako itxarongeletan, ez inongo etxeko telebistaren pantailan, ez inoren erretinan. Hala ere, sozialki itunduta dago gu garella obszenoak. Gu, txakurremeak, zalantzarik gabe geure gorputzak erakusten ditugunak, putak, porno aktoriesak. Eta horregatik debekatzen da gure gorputzen erakusketa borondatezkoa eta isilarazi egiten gaituzte, baita gutaz hitz egiten ari direnean ere.